

4. JARDUNALDIETAN DANBOLINTEROEI BURUZ

“Danbolinteroen iragana, oraina eta geroaz” aritu ginen pasa den azaroan. Euskal Herriko Txistularien Elkartearekin batera antolatutako ekitaldi honetan zenbait gaitan gehiago sakontzeko beharra geratu zaigu ondorio nagusi bezala, ez baita posible hain denbora gutxitan horrelako gai potoloa agortzerik. Halere hausnarke-tarako gauza dexente geratu zaizkigu... eta elkarlanaren balorazio ezin baikorragoa.

Izan ere gaia oso zabala zen baina larunbat goizean izan genituen bi hitzaldiek lagundu zuten bera kokatzen. Hasteko Zamorako Alberto Jambrina danboliteroak errebaso zabala baina trinkoa eman zion penintsulako mende-baldean danboliteroak izan duen bilakaerari; bakarrik bere herrian, urtean behin egiten den dantza bakarraren doinua ezagutzen duenarengandik hasita, beste soinu-tresnekin batera folk alorra jorratzen duenarengana arte. Oso xehetasun interesgarriak eman zizkigun kasu bakoitzetik, musikari bakoitza bere testuinguruarekin lotuz. Penintsulako alde horretako danbolinteroen errealitatea urrutikoa egin bazitzaigun alderdi batzuetan besteetan berriz oso hurbila zen gurearengandik.

Hurrengo hizlariak, Mikel Aranburuk hain zuzen ere, oso azalpen dokumentatua eskeini zigun Euskal Herriko danbolinteroaren historiari buruz, bereziki Nafarroa aldeari dagokionez. Bere erakustaldi hartan txistulariaren funtzio publikoa historian zehar, eta fenomeno identitarioekin sortzen diren interaktuazioak aztertu zituen. Noski, dantzak, eta danbolinteroaren paperak horretan zati garrantzitsua izan zuten mintzaldian. Ondoren eztabaida interesgarria sortu zen publikoarekin batera eta horrelakoetan gertatzen den bezala, hau bazkarira - Altxibarko Bileran- ere zabaldu zen. Arratsaldean mahai ingurua burutu zen, goizeko bi hizlariak Garikoitz Mendizabal, Iñaki Eguren, Ismael



Yagüe eta Raul Madinabeitia gehitu zitzaizkielarik, Aitor Arozena moderatzaile bezala arituz. Goizean ikututako puntu batzuetan sakontzeko aukera izan genuen eta beste batzuk ere atera ziren. Horrela, plaza galdu dugun ala ez, hurrengo belaunaldien prestakuntza, musika eskola eta kontserbatorioen problematika etabar luzea. Herri Musikaren Txokoari bisita azkar bat egiteko aukera izan zen geroago Danbolinteroan Jaialdia hasi baino lehenago. Hau Oiertzungo Udaletxeko Batzar Areto Nagusian ospatu zen eta bertan oso estilo ezberdinak dastatu genituen. Baztango Xulubitariak diren Patxi Larraldeak eta Juan Migel Iriartek Baztango herri musikaren ale batzuk eskeini zizkiguten. Ondoren Zamorako danbolin musikara hurbildu ginen Alberto Jambrinaren eskutik eta Bilbaoko Udal Txistulari Bandaren saio ederra entzun genuen. Horren ondoren afaria izan zen Lartaun Elkartearen. Igandean praktikara jo genuen

eta bezperan Jambrinak erabilitako zenbait danbolinaren erritmo ikasten saiatu ginen. Harekin, bere teknika berezira ere hurbildu ginen. Hurrengo tailerra Sabin Bikandiren eskutik etorri zitzaigun eta bertan txistulari izatetik danbolintero izatera dagoen bidea ikusi eta landu genuen. Guztiontzat oso aberasgarria izan zen tailerra eta sakontzeko gogoia geratu zitzaigun.

Egun horretan ere ondo merezia genuen bazkaria eta Girizia Elkarte ezin aproposa izan zen horretarako.

Eta Jardunaldiak bukatzeko, erromeria izan zen Doneztebe Plazan. Eguraldi hotza berehalaxe berotu zuten Oiertzungo Trikitilari Eskolakoek eta haien ondoren gaur egungo danbolinteroentzat hain erreferentziala den Donostiako Udaleko Txistulari Bandak. Hauek, Aitziber Aiesta eta Fernando Ruiz dantza animatzaileen laguntzaz guztiok jarri gintuzten dantzan.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Neguko kontzertua

2006ko otsailaren 4an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

JOXAN GOIKOETXEA

(Hernani)



(Hernani - Gipuzkoa. 1967- XII - 17)

Kepa Junkera, Joseba Tapia, Xabier Lete, Imanol, Paco Ibañez, Anje Duhalde, Diego Vasallo, L.E.Aute, Alberto Iglesias, Dulce Pontes, Noa, Alasdair Fraser & Skyedance, Bingen Mendizabal, Joan Valent, Antton Valverde, Xabier Euzkitze, Andoni Egaña, Pasión Vega, Clara Montes, Carmen París, Angel Illarramendi, Balen Lpz. de Munain eta abar...). Aldi berean, antzerki, zuzeneko espektakuloetarako nahiz telebistako lanetarako musikaren egile, moldatzaile edo ekoizle ere bada.

Musika tradizionalari dagokionez, Joxan Goikoetxearen ibilbidea bi egitasmo paralelotan banatzen da: batetik, zuzeneko folk tradizionalaren alorrean, ALBOKA, lau grabaketa diskografiko eginez - ALBOKA (94), BI BESO LUR (98), LORIUS (2000) eta LAU ANAIK (2004) ; bestetik, Juan Mari Beltranekin batera sortutako lanak - EGURRAREN ORPOTIK DATOR...(93) eta BETI TTUN- TTUN (98) -. Musikaren esperimentazio eta birziklapenaren gainean, berarentzat ezinbesteko erreferentzi puntua den Suso Saiz gitarra-jole eta ekoizlearekin batera estudioan lan egin du. Elkarrekin QUARTET (97), zuzenean, eta ELEKTRO PSYCHODELIC FILM MUSIC REMIX (2000) grabatu dituzte. LIBERTANGO lanaren ondoren, AME-TSAREN BIDEA (94), METROPOLIS (95) eta SUPERNOVA (2000) sortu ditu, musika-irudia-testua hirukiaren inguruan proposatzen duen bideari eutsiz. Hiru elementu horiek uztartzen dituen GOAZEN LAGUN (96) ere plazaratu du Joxanek, berak CD-Rom multimedia formatuan egindako lehen lana eta Euskal Herrian ere era honetara inoiz argitara eraman den lehen-dabizikoa. Sortze-kontzeptu berri hau oinarri harturik, AZTARNA, euskal artisten lanak formatu berri honetan argitaratzekotan asmatutako zigilu berria sortzera ere animatu zen.

Hiperaktibitateak eta ugaritasunak euskal musikari eklektiko eta berritzaile honen jardura markatu ohi dute.

Musika, kantua eta dantza alorretan murgildurik abiatu zen musika munduan, txistuarekin hasiera batean eta akordeoiarekin beranduago. Lan horiek, Donostiako Musika Kontserbatorioan, Mikel Bikondoarekin egiten ari zen ikasketekin osatu zituen, akordeoi garaikidea eta abangoardiako musikaren eremuetara hurbilduz. Karrera amaierako saria lortu zuelarik, Europako lehiaketa ezberdinetan parte hartu zuen, bai eta Le Thor (Frantzia) hirian ikasketak jarraitu ere.

Richard Galliano akordeoilari frantsesaren eranginpean, bere bi lehen diskoak, LEHENENGO GELTOKIAN (88) eta KOLLAGE (91), akordeoi-jazz esparruan grabatu zituen.

"HAT" (Hernaniko Akordeoi Taldea) (1987-1991) sortu zuen, errepertorio klasikoa oinarri hartuta ganbara musika jorratuz. Astor Piazzolaren omenezko LIBERTANGO (1991) ere grabatu zuen.

1985 urteaz geroztik irakasle lanetan ari da Hernaniko Musika Eskolan, aldi berean Euskadiko zein Estatuko abeslari eta taldeekin batera makina bat kolaborazio ezberdin burutu dituelarik (Javier Alvarez, Suso Saiz, Jorge Drexler, Txomin Artola, Amaia Zubiria, Oskorri,

PARIS - LAZAREVITCH BIKOTEA (Frantzia)



Dominique Paris eta François Lazarevitch
musette barrokoa eta cabrette

XVII eta XVIII mendeetan zehar, Frantzian, xirolarruari izugarritzko bultzada ematen diote egileek, joleek eta konpositoreek batera, beraien asmoa "musettea" soinu-tresna kulta bihurtzea delarik, flauta edo biolinaren maila berberean jarritz.

XIX. mendean berriz, Parisko Auverniarren artean "cabrettea" sortzen da. Soinu tresna honek xirolarru barrokoaren egitura fisikoa mantendu arren (auspoa, zakua eta kaja), jotzeko era eta sonoritatea erabat ezberdinak ditu.

Paris-Lazarevitch bikotea bakarra da bere arloan. Musikari autodidakta eta tradizional batek eta Parisko Kontserbatorioan diplomatutako beste musikari "klasiko" batek osatzen dute.

Kontzertu honi dagokionez bi zati izango ditu:

1.- Bi "musette"-ntzako erreperitorio

barrokoa. Dantzak jotzeko Dominiqueren trebeziak alde batetik eta jotzeko aintzineko eren Françoisen daukan ezagutza sakonak bestetik ahalbideratuko du erreperitorio hau, bere xarma osoaz, berraurkitzea.

2.- Bi "cabrette" entzako Auverniako erreperitorioa. Pikatuen erritmo indartsuak eta doinu-aldaketek sortu-

tako emaitza ez ohikoa eta harrigarria gertatuko zaigu.

Bi musikari hauek -nahiz eta, itxuraz, bide kontrajarriak ibili- erritmo eta fraseoaren kontzeptu berbera daukate eta emaitza oso musika naturala eta atsegina da.

Neguko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 12 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



Herri Musikaren Txokoa



DAGOENKO 10.000 BISITARI KOPURUA GAINDITU DUGU

Hamar urte pasa dira Juan Mari Beltranek egun haietan Oiartzungo alkate jauna zen Jon Iñarrari Herri Musikaren Txokoaren egitasmoa aurkeztu zionetik. 1995eko ekaineko goiz hartan abiatu zen gure ibilbidea. Berehala Oiartzungo Udalak proiektu hau Oiartzunen martxan jartzea onartu eta antolatzen hasteko behar zen azpiegitura eskaini zuen. Ergoiengo auzoko Eskola izandako egoitzaren giltzak hartu eta pixkanaka bete ziren bertako gela eta aretoak soinu-tresna, liburu, disko, audio zintak, argazki, pelikulak eta herri musika bestelako materialez. Ondoren hamaika laguntzaileek bertan egindako lanaren ondorioz milaka fitxa osatu ziren eta soinu-tresnen erakusketa antolatzen hasi zen. Zazpi urte pasa ziren modu horretan, lan ordutik eta lanegunetik kanpo, gure egitasmoaren eta herri musikaren alde hamaika boluntario pasa ziren Ergoiengo txokotik eta horiek egindako lanaren bitartez egituratu ziren gure aurreneko "datu-baseak", soinu-tresnen bildumaren antolaketa, tailerra, etabar.

2002ko martxoaren batean eta berriz ere Oiartzungo Udalaren babesarekin inauguratu genuen Herri Musikaren Txokoa eta goerotik, hasieran asteen bi egunez (ostirala eta larunbata) eta 2003ko hasieratik asteen hiru egunetan (osteguna, ostirala eta larunbata), publiko guztiari gure zerbitzuak eskaintzen dizkiogu.

BISITARI KOPURUA

Urtia: bisitari kopurua: 72

Antolatutako taldeak: 3

Azaroa: bisitari kopurua: 301

Antolatutako taldeak: 12

Abendua: bisitari kopurua: 125

Antolatutako taldeak: 9

Bisitari kopurua urtarrilerara arte: 10.355

Gure ibilbidean alde guztiak dira garrantzitsuak: ikertzaile eta ikasleei beren ikerketa eta bestelako lanak egiteko eskaintako laguntza, antolatu ditugun kontzertuak, beste erakunde eta elkarteekin antolatu ditugun jardunaldiak, eta, nola ez, erakusketa ezagutzera etorri zaizkigun milaka pertsonak hartzea.

Adin eta mota guztietako bisitariak izan ditugu: ikastaldea, musika ikasleak, musikariak, unibertitarioak, mendizaleak, gazte taldeak, emakume taldeak etabar. Dagoeneko 10.000 baino gehiago bisitari kopurua gainditu dugu.

Datu honek alde batetik gure proiektuak izan duen harrera ona adierazten digu eta bestetik animoa ematen digu aurrera jarraitzeko bide beretik.

KANTABRIATIK BISITA BEREZIA

Pasa den azaroaren 19an bisita berezia heldu zitzaigun Cantabriako Arnuerotik. Familia gazteek osatzen zuten: gurasoak eta umeak, 2tik 40ra arteko adinekoak. Bi belaunaldi batzen zituen bisita interesgarri honek oso ondo funtzionatu zuen. Gure bisita-liburuan zera idatzi zuten: **"Ezkerrik asko por todo. Nos lo hemos pasado muy bien y hemos aprendido mucho, desde los 2 meses, pasando por los de 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 años hasta los de cuarenta"**



Kantabrietik etorritako taldea Txokoari bisitan

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org



oiartzungo
udala